

# Azterketei begirako errepasoa

## Aurrez prestatu eta antolatu ikasten igaroko duzun denbora

- Errepaso-egutegia sortu, gai bakoitzari denbora jakin bat eskainita.
- Ordutegiaren barruan gai bakoitzari bere tarte eman.
- Errepasoa egingo duzun leku berean kokatu egutegia, edozein momentutan ikusi ahal izateko.
- Identifikatu eguneko zein ordutan egiten duzun lan ondoen.

## Errepasoa

- Irakurketa-denbora murriztu.
- Ager daitezkeen galderak ezagutzen saiatu – galdetu irakasleari/tutoreari zeintzuk diren alor garrantzitsuenak eta begiratu duela gutxiko azterketak.
- Erabili kolore bakarra gai bereko galderak markatzeko. Gai bereko galderak elkartu.
- Elkarrekin ikusteak ardatzen lagun zaitzake.
- Irakurri beharrea, entzun apunteak. Testu-ahots softwarea lagungarria izan daiteke: ikasketarako berariaz diseinatutako softwarea ere existitzen da.

## Berreskuratze aktiboa erabili

- **Zer dakizu dagoeneko?**
  - Idatz ezazu.
  - Egiaztatu zer gehiago ikasi behar duzun.
- **Erabili kolorea datuak azpimarratzeko**
  - Kolorea erabil dezakezu gaiak batzeko.
- **“Trikimailu orriak/txuletak” prestatu, etxean erabiltzeko soilik**
  - Erreferentzia txartelak prestatu, puntukako edo zenbakitutako binetetan oharrak idatzita.
  - Gako-hitz edo esaldiak bakarrik idatzi.
  - Koloreaz baliatu puntu desberdinak bereizteko.
  - Hitzak gutxitze aldera, erabili sinboloak, irudiak, zenbakiak, diagramak, taulak eta grafikoak.
  - Ezezagunagoak diren gaiekin, erabili bineta kopuru handiagoa, izan zenbakiak edo puntudunak.



# Mapa mentalak baliagarriak dira bisualki ikasten duten pertsonentzat


## Errepasatzerako orduan mapa mentalak egitearen onurak

- Ideia eta informazio nagusiak (eta horien arteko loturak) orri bakarrean ikus ditzakezu.
- Zeure ideiak eta iruzkinak erantsi ditzakezu oharretan, baita aparteko irakurketen informazioa eta ideiak ere.
- Ikasketa aktibo bihurtzen dute, ez baitzaude soilik apunteak behin eta berriz irakurtzen.
- Saio motzagoetan ikastea ahalbidetzen du – deskantsurako tarte baten ostean ikasten jarrai dezakezu berrikuste azkar batekin.
- Ohiko apunteen antzik ez duten laburpenak sortzeko aukera eskaintzen dute; buruz ikastea errazte du horrek.
- Informazioa birformatzeak erraztu egiten du informazio horren ulermena; era berean, azkarrago memorizatzeke aukera ere eskaintzen du.
- Behin eginda, errepasatzeko errazak dira laburpen mota horiek – aldizka berrikusi daitezke.

## Punturik garrantzitsuenak memorizatzen

Informazio kate bat egin zure buruan; horretarako, erabili irudimena eta asoziazioak. Sortu pelikula bat. Erabil itzazu akronimoak (letrak) errazago gogoratzeko.

Los **R**omanos **N**avegaban **A**mbicionaban **V**encían y **A**zuzaban en **A**ños **V**ictoriosos =



## Azterketari aurre egin

Memoriaren bidezko datuen oroitzapenean eta pentsamenduaren prozesamendu azkartasunean eragiten du dislexiak. Ondorioz, galderak erantzuteko denboran ere eragiten du. Hori dela eta\*:

Eska dezakezu norbaitek zuri azterketa irakurtzea. Normalean testu-ahots softwarea erabiltzen baduzu, bai ikasgelan eta baita eskola-testetan ere, erabil dezakezu. Gainontzeko ikasleengandik bereizita dagoen gela batera joatea eska dezakezu. Denbora gehigarria eska dezakezu (normalean %25).

Azterketei aurre egiteko dituzun estrategiak ezagutzea baliagarria izan daiteke eskola utzi ostean ere.

\*Jarraian ageri diren egokitzapenak dira internazionalki gehien gomendatzen dituztenak. Kontsulta ezazu zure erkidegoan onartuta dagoen araudia.